HAL
open science

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntzaz Ipar Euskal Herrian : adibide batzuk

Jean-Baptiste Coyos

To cite this version:

Jean-Baptiste Coyos. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntzaz Ipar Euskal Herrian : adibide batzuk. “ Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak ” Euskaltzaindia - XIII. Jagon Jardunaldiak, Nov 2008, Bilbo, Espainia. artxibo-00344170v2

HAL Id: artxibo-00344170

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00344170v2

Submitted on 19 Dec 2008 (v2), last revised 15 Sep 2009 (v3)

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskaltzaindia - XIII. Jagon Jardunaldiak
« ***Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak*** »
Bilbo - 2008/11/21

KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN HIZKUNTZAZ IPAR EUSKAL HERRIAN : ADIBIDE BATZUK

Jean-Baptiste *Battittu* COYOS
jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

Euskaldunaren Almanaka-ren *Belle Jardinière* saltegi handia (1923).

SARRERA

Hizkuntza baten bizindarra erabileran neurtzen da bereziki. Horri buruz hizkuntzaren lekua bizitza sozio-ekonomikoan adierazle garrantzitsu bat da, erran nahi baita ekoizpen eta kontsumo guneeetan, Erramun Baxokek goiz honetan erran digun bezala.

Ipar Euskal Herriko kasua hartuz adibide batzuk eman nahi nituzke, XIX. mendeko eta XX. mendeko hastepeneko euskararen erabilera berezi bat aipatuz, oraiko egoerari konparatu nahian. Aurkezpen hau Frantziako oraiko hizkuntza legeriaren testuinguruan kokatuko dut.

1. EUSKARAREN PRESENTZIA KONTSUMOAN XIX. MENDEKO IPARRALDEAN : ALMANAKETAKO IRAGARKIAK

Zein izan ziren mendeen zehar euskararen erabilera areagotzeko eta indarberritzeko ekintzak kontsumoan ? Zein izan da euskararen presentzia, euskararen erabilera lehenago komunikazio tresnetan ?

OBIN tratulariaren etchea

J. NEYS. HARENDONDOKOA

BAYONAN

Lormand carrican, 3, lumeroan

YOSTEKO TRESNAC MOTA GUCIETARIC

Aparailu holakoentzat, frantces, angles eta amerikano, egile hobeenen, mandatari bakarra.

Yosteko aparailuac familientzat, dendari, chachtre, eta zapatainentzat.

Precioac hainitz aphalduac pagamenduaren aisetasuna, ikhasteko manera urriric.

Molde berriko LISA-BURDINAC eta egun osoa berac berotzendirenac sos baten ikhatzarekin.

KUTCHA AZKARRAC Baude gisan, ezinerriac eta bereciki ohoinen eta suaren contra segurtatuac.

Velocipedes edo laster ibiltzeko firrilac, anglesac eta francesac molde gucietaric; bi-arroda eta hirur arrodetakoac, Budge, Howe, etc. Pagamenduarentzat aisetasuna.

SOCIÉTÉ GÉNÉRALE

Franciaco combertsioaren eta lanaren laguntceco eguina

FONDATUA 1864an

SOCIETATEAREN CAPITALA : 120 millioons

Bureu principala Parisen : 54 eta 56, rue de Provence

BAYONACO BUREUA : RUE VAINSOT, 6

CHARLES LABORDE, BAYONACO DIRECTORA

Societate yeneralac errecebitcendu dirua conditione hautan :

Diru paussatua galdeguin orduco bihurtua dena emaiten du ehuneco bat interes . . . . . 1 %

Borts urhetaco plaçatua den diruari ehuneco lau eta erdi . . . . . 4 1/2 %.

Societate yeneralac pagatcentu titulu frantces eta estranyer gucien intressac.

Gargatcenda ere Bolsaco tituluen saltzias eta erostias.

BAYONACO *BUREUAREN OPERACIONE* PRINCIPALAC DIRA :

Pariseco bolsan eguin behar diren ordren eguitias.

Tituluetan eguin behar diren operacioneac (chanyatcia, berritcea, etc.)

Tituluen guaitatcias.

Tituluen gainian diruaren emaitiaz.

Tituluen intressen pagatsias.

Tirayten atheratcen diren tituluen somaren emaitiaz.

Franciaco eta Estranyereco hiri principalenetarat diruaren fournitsias.

Souscriptione gucietaco emissionen eguitias.

Societate Yeneralac saltzen du gastuic gabe Lyoneco, Ouesteco eta Esteco burdin biden obligacioneac, bai eta ere Bauca Hypothekatua eta Lyoneco hiriac 1880an empruntatu duen obligacioneac.

Euskaldun Almanac edo onaren berria-ren *Obin* tresna merkataria (1884) eta *Société générale* bankua (1885)

Euskararen historia sozialean sartzea litzateke hori eta alor zabal horretan ez naiz hemen ibiliko. Halere esperientzia interesgarri bat nahi nuke aipatu, Baionako almanaketako iragarkiena. 1848an argitaratzen da lehen aldikotz almanaka bat, Jean-Baptiste Etcheberry apaizaren eskutik (Díaz Noci : 35). Geroztik errepublikazaleek ere berenak argitaratuko dituzte, xuri eta gorrien arteko borroka prentsan biziaraziz. *Euskaldun Almanac edo onaren berria*, adibidez, bonapartista zen (Díaz Noci : 37).

YOSTECO MACHINAC

EGIEZCO "Singer"

SINGER Compainiac abisatzen du, baduela DONIBANEN, P. CAZEAUX baitan, bere *YOSTECO MACHINA* famatuen depota bat.

Machina horiec, baster guzietan yabalduac, yustuki estimatuac dire egiten duten lanaren fintasunas eta errechtasunas.

P. CAZEAUX da bakharric DONIBANEN Compainia *Singer-en* encargatua.

YOSTECO MACHINAC

EGIEZCO "Singer"

SINGER Compainiac abisatzen du, baduela DONIBANEN, P. CAZEAUX baitan, bere *YOSTECO MACHINA* famatuen depota bat.

Machina horiec, baster guzietan yabalduac, yustuki estimatuac dire egiten duten lanaren fintasunas eta errechtasunas.

P. CAZEAUX da bakharric DONIBANEN Compainia *Singer-en* encargatua.

Euskaldun Almanac edo onaren berria-ren *Casenave* txokolategia (1884) eta *Almanaka Berria*-ren *Singer* josteko mekanika (1885).

Almanaka horiek urtekariak ziren, euskara hutsez. Efemeride, laborariendako aholku, ipuin, historia labur eta ere publizitate edukitzen zituzten, besteak beste. 1884ko *Euskaldun Almanac edo onaren berria* almanakak adibidez 42 orrialde baditu, horietatik 7 publizitatez. 1885eko *Almanaka Berria*-k 64 orrialde ditu, horietatik 7 orrialde gehi azpiko orria iragarkiekin.

Ameriketaco PACABOT eta BAPURREN
COMPAINIA YENERALA
Buruzagia M. E. DEPAS eta Cia
BORDELEN, ESPRIT-DES-LOIS, CARRICAN, N° 8an DAGONA.

Partiadac dire : Ilhabete gucien 5an eta 20an *Buenos-Ayres, Montevideo, Lima, Valparaiso, Habana, New-Orleans, New-York, Quebek, San-Francisco, Brasil* eta munduco bertze ponthu guzietaco.

Pasayarrac hartzen dire ponthu guzietaco, Postaco pacabota frantsesetan, ilhen 5an eta 20an, eta asté guziz bertze bapur, lehembicico Compainia frantses eta estranyeretacotan.

PASAYAC HARTZECO ENCARGATUA DA
J.-B. DELUC, Donibane-Lohitzunen
Tourasse carrican, n° 15an, dagona
zeinac emaiten baititu behar diren argitasunac, eta egiten pasayaco contratuac.

Pasayaco precioac, bertze encargatu guziec baino merkeago.

Almanaka Berria-ren « Ameriketaco Pacabot eta Bapurren compainia yenerala » (1885) eta *Euskaldunaren Almanaka*-ren *André Louis* espartin egileak (1923).

Iragargi horiek euskara hutsez ziren batez ere, bainan batzuk frantsesarekin nahasiak :

Ikus *Euskaldun Onaren Almanaka*-ren Pharmacie Moderne (1907) eta Bénédictine edaria (1911), edo *Euskaldunaren Almanaka*ren Belle Jardinière (1923), gorago.

Oraiko egoerari konparatuz, ikusiz gaur egungo euskarazko publizitatea murritza dela Iparraldean, zer suposa ote genezakeen ? Orduan jendea euskaldunago zela edo bederen orduko euskal irakurlegoa oraingoa baino handiago zela.

2. FRANTZIAKO HIZKUNTZA-LEGERIA ETA KONTSUMITZAILEAK : HIZKUNTZA-ESKUBIDERIK EZ, FRANTSESDUNENTZAT EZ EZIK

Euskararen gaur egunko egoera ulertzeko indarrean dagoen hizkuntza-legeria kontuan hartu behar dugu, besteak beste. Gure aztergaiari lotuak diren legezko testu denak ez ditugu apaituko hemen. Azpimarratu behar da ere Frantziako hikuntzek berezko legerik ez dutela, frantsesak ez ezik.

Aipatzeko lehen testua 1789ko *Gizakiaren eta Herritarren Eskubideei buruzko Adierazpena* da. Bere 11. artikuluan « herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima

dezake » baieztazen du (Euskaltzaindia : 137). Halere podere publikoek jakinarazi dute frantsesez inprimatuak ez diren Frantziako aldizkariak beren buruari buruzko beharrezko lege-aipamenak frantsesez eman behar dituztela, prentsari ematen dion Estatuko diru laguntza eskuratzeko. Erabaki horrek urte batzuk ditu eta horrengatik ez da orain Frantzian, frantsesez salbu, argitaratuak diren hizkuntza hutsezko aldizkaririk.

Testu garrantzitsuena Toubon legea da, *Frantsesaren erabilerari buruzkoa* (« Loi relative à l'usage de la langue française », 1994). Bere lehen artikuluak adierazten du : « Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasuna eta ondarearen oinarrizko osagaia ere bada. Horixe da hezkuntzaren, garraioaren, trukeen eta zerbitzu publikoen hizkuntza (…) » (Euskaltzaindia : 144). Ondotik 14 artikulun zehar legeak frantsesari beharrezkotasuna eta bakartasuna ematen dizkio, kontsumoaren egoera eta alor desberdinetan, dokumentu, jarraikibide, iragarki, argitalpen, gertakari mota denetarik aipatuz. Ez ditugu hemen zerrendatuko. 16. eta 17. artikuluetan, arau hoien hausteko zigorrak zehaztu dira.

Halere 21. artikuluak dio : « Lege honen xedapenak aplikagarriak dira, Frantziako erregioetako hizkuntzen legeriari eta araudiei kalterik egin gabe, eta ez dira haien erabileraren aurkakoak » (*ibid.*). Jakinez kontsumoan hizkuntza hoien erabileraren alde legerik ez dela, frantsesa da legezko hizkuntza gizarte-alor horretan. Beste Frantziako hizkuntzak jasanak dira baina beti frantsesaren ondoan.

Indarrean den legeriarengatik, hiztun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak dira, hiritarren berdintasunagatik (Konstituzioko 1. artikulua). Herri hizkuntzen erabilera publikoa ezin onartua da 2. artikuluaren emendakin berriarengatik. Era batez norbanakoen eskubideak zainduak dira, baina alor pribatu eta hurbilean bakarrik. Bizi publikoan. Hizkuntza-eskubiderik ez da Frantziako eskualde hizkuntzen kasuan, frantsesdunentzat bakarrik.

Beraz euskararen alde kontsumo eremuan gehiago egin daiteke Ipar Euskal Herrian, baina beti frantsesa erabiliz ere.

3. EUSKARAREN ESKAINTZA KONTSUMOAN – ADIBIDE BATZUK

Orotarat Ipar Euskal Herrian gauza gutxi dira euskara kontsumoan baliatzen dutenak. Halere panorama osoa ematea luzeegi litzateke xehetasunetan sartuko bagina. Beraz adibide batzuk baizik ez ditut emanen.

3.1. Zerbitzuak eta merkataritza : SNCF, bankuak, saltegiak, norabide

Bada orain urte batzuk **Demoak** euskaltzale talde kontestatzaileak **SNCF** tren konpania euskaldundu nahi duela, euskara Iparraldeko geltokietan sar dadila bederen. 17 ekintza eginak dituzte, poliziak 55 pertsona polizia-etxera eramanak ditu, zigorrak metatu dira. Baina, azkenean, SNCFak ez du deus egin eta orain duela gutxi eraberritu duten Baionako geltikoan ingelesa eta gaztelania sartuak dira. Euskara ez.

Bankuak Banketxeek txeke-liburuxka elebidunak eskaintzen dituzte : baina ez dute sistematikoki proposatzen eta euskaltzaleek ez ezik bezeroek ez dituzte horiek eskatzen, ez baitaikte badirela ere. Ohizkoenean, euskaraz idatziak diren txekeak onartuak dira, Iparralde osoan bederen. Bainan ez da sistematikoa. Kutxa automatiko batzuetan mezuak bi hizkuntzetan dira.



Crédit Mutuel — Relevé d'identité bancaire-IBAN

CCM BAYONNE CENTRE
Tél 05-59-29-05-60
5 RUE DU 49EME
64100 BAYONNE

Emaiozu orrixka hau,zure kontuko jalgitzen eta sartzen helbideratzeko zure erreferentziak behar dituenart.Gisa horretan,eragiketa horiek okerrik eta berantik gabe eginen dira.
This statement is intended to be delivered, to those of your creditors or debtors who have transactions posted to account (credit, transfers, payments, etc.....)

Identifiant national de compte bancaire - RIB

Bankuaren Kodea / Code Banque	Bulegoaren Kodea / Code Guichet	Kontuaren Zenbakia / Numéro de Compte	B.O rengakoa / Clé RIB	Helbideratzea / Domiciliation
15999	02277	00055405501	19	CCM BAYONNE CENTRE

Identifiant international de compte bancaire

IBAN (International Bank Account number)	BIC (Bank Identification Code)
FR76 1599 9022 7700 0554 0550 119	CMCIFR2A

KONTUAREN TITULARRA / ACCOUNT OWNER: ELIZABERRIKO GAU ESKOLA
CZ M LAPEGUE
MAISON BORDA
QUARTIER ELIZABERRI
64990 MOUGUERRE

Crédit Mutuel-en banku nortasun-laburpena.

Saltegiak Supermerkatu eta hipermerkatu batzuek seinaletika elebiduna erabilten dute barneko bideetan, eta ez besterik, ez produktuen etiketetan adibidez. Ordainlekuan nehork ez du euskara erabilten, ez eta ere ahozko abisuetan. Denda hoietan euskara idatz daitekeela baina ahozko hikuntza ez dela erran genezake.

3.2. Prentsa :

Ikus dezagun orain zer den euskararen lekua gaur egunko prentsako iragarkietan Ipar Euskal Herrian. *Sud-Ouest* Bordeleko monopolia zuen egunkariak ez du bat ere euskara erabilten. *Berria* egunkaria ez dugu aipatuko, Hegoaldean argitaratua baita. Beraz *Le journal du Pays Basque* egunkariari eta *Herria* astekariari interesatuko gara.

Herria astekaria euskara hutsez idatzia da. Bere zortzi orrialdeetan publizitate gutxi baditu ; euskaraz dira, frantsesarekin nahasia batzutan eta tamaina txikikoak. Batzutan enpresa pribatuen publizitatea dela ohartu behar da.

Juankar-ren poesia ez baita bakarrik hemengoa baina bai lur gainean dabiltzan ibiltari guziena, bere ikuspegi zorrotzaren bitartez, hor, gure pean miia puskatxotan, Alvaro Mundiñanoren "en trompe l'oeil" margoen detaile berintsuekin batera, Aralar eta Urbasako mendi gainetan dabilan Andres Garmendiaren boz nahimen haundiarekin batera, mundu fragmentarioa bat asmarazi digu, jakinez oinarrizkoa eta itsutuki maite dugun toki batean nahiko ginukelarik izan, borbaluak gareia urrun egotera. Desilusioak... erauzteak... ihesak... gordetzeak... desterretzeak... hiltzeak... azken finean, maite dugunaren gehiago ez ikusteak : dakarren bihotz urratzeak ditu nunbait poesiaren hegalak Juankar-ri zabalarazten. Gure izaitea bikoiztasunez betea delakotz ("sortzea-hiltzea", "emaztea-gizona", "mina-atsegina", "amodioa-herra"),bere espresioak trauma asko agertzen digu, baina asma ditaike ere Juankarrek nahiko lukeela sendimendu xuxurlatuekin eraiki litaikeen mundu bat ikusi, bai eta bere ohean xori migratzailearen ohantze bat aurkitu, berarekin muga guzien gainetik hegaldaka librez ibiltzeko.
Juankar Mugartzaren euskarakiko engaiamendua sentitu dugu ere, meatzari batek bezala, lur barnetik jalgiarazten dituen harri bitxien pare, sakonki ikertutako hitz ahaztu batzu bere oierkietan nun nahi eskaintzen baldauzkigu.
Auxtin Zamora

peinture/vitrerie/papiers peints
revêtements sols et murs
étanchéité façades
Tindatzailea
MARTIN IRAZOQUY
JEAN-PIERRE IRIBARREN-en segida harturik
"Kaillardoenea" - 64210 AHETZE
Tél. 05 59 41 99 02

ko gazteen "Sorginak", besteak beste.

BERTSULARI XAPELKETA

Urratsez urrats bertsulari xapelketa heldu da finalaren aterainо joanden igandean Urdiñarben izan den azken kanporaketarekin. Aro txarra izanagatik berrehun bat entzulek parte hartu dute saioan giro oso onean. Ari behar ziren sei bertsuiariak hor ziren, lanak ohizkoak Ramuntxo Christyren gidaritzapean. Kartzelako gaia aldi huntan hau zuten : "Nahiz eta aberatsa ziren, egiazki eskas duzun hori ezin duzu ukan". Bukaeran sailkapena hauxe zen : 1°) Odei Barroso 318,5 punturekin, 2°) Miren Artetxe 308 p. 3°)Ekhi Erremundegi 302,5 p. 4°) Enertz Zabalete 298,5 p. 5°) Kitdine Txoperena 295 p. 6°) Egnitz Zelaia 269,5 p. Azaroaren 15ean, aratsaldeko 5etan, lokatuko den finaleko zortzikotea honela osatua da, ez ukan puntuen arabera bainan alfabetiko ordenan : Karlos Aizpurua, Miren Artetxe, Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Odei Barroso, Sustrai Colina, Ekhi Erremundegi eta Xumai Murua. Ohar hau egin gabe ezin da utzi Ekhi Erremundegi eta Mixel Aire Xalbador-ek pundu kopuru bera izan dutela kanporaketa horietan bainan epaileen postuen eta arauen arabera lehen izendatua doa finaliera. Gehituko dut erranez nahi duenarentzat finala aitzin bazkaltzeko ahala izanen dela 22 eurotan tokian bereen bainan behar beharrezkoa da izenak emaitea aitzinetik telefono huntara deituz : 0559540786. Ongi etorri oraidanik bertsuzale guzier.
B.S.

Odei Barroso ta Miren Artetxe bi lehenak

Ekhi Erremundegi kantuz

Martin Irazoquy tindatzailearena (*Herria*, 2008/11/06 2890)

eGUN eTA BIHAR

ARO HITSA

Duela zonbait denbora jadanik hedatua zen solasa eta orai sua berriz piztu da hor gaindi: Frantzian barna baltira 115 aro-ikertegi, noiz nun nolako aroa izanen den erraiten dutenak, 70 segurik alde bat zerratuko omen dira arramoldaketa zabal baten estakuruan. Ez berehala bainan emeki emeki, zazpi edo zortzi urte barne, eta langilerik kanpo ezarri gabe, bakarrik erretretarat joanen direnen ordainik ez hartuz...

Egun hotan, bazterrak kexatu dira horren gainetik, ikertegietako langile asko greban ere jarri. Diote ikertegien sarea azkartu behar ittakeela izaitekotz, gero eta munta handiagoa baduela sail horrek. Arrakasta ere araberan. Arramoldaketaren alde direnek errefera gaurko egunean diren erredasunekin ikertegi guztiqo eta langile gutiago aski dela lan beraren egiteko eta tresna berri arraro batzueri esker langile gutiagorekin ere lan hobea eginen dela berdin...

ETA ORAI ?

Barikoek hein bat azkar iraun dezaten, bestenaz ekonomia guziaren kaltto handitan ikakeela, gobernuak hartu dirustatze neurri bereziak onartu dituzte deputatu eta zenaturrek. Eskuindar eta "erdiko" alde agertuz, komunistak kontra, sozialistek boza xuri emaiten zutela, delako neurriak arras onak kausiturik ere, arras onak bainan halere eskasegiak...

Eta orai beraz, nun gira? Espantu guti bazterretan, ainitzek errepikaturik ere bide onetik abiatuak girela saltsa handiegirik ez izaiteko hor gaindi, orai artinokoekin badela segurki asiki

Bainan nehor ez haatik biziki fida geroari buruz eta halako sukar mintu bat beti hor... Burtsa aldakor, batean kolpez goiti ari, bestean tanpez behelti... Bestalde, lantegi frangotan sendi halako giro ilun aire bat. Nagusiak dudakor, iriskurik ez hartu nahi. Lana aitzina xuhurtzen ari lekuka segurik, lan-eskasaren ausikia jadanik ere handikoa zelarik... Hots, zerua arras golbeldua egoki...

Hainbestenarekin jakin da "Caisse d'Epargne" etxeak kolpez sei ehun milliun euro galdu zituela urriaren 6-an, aski tratu okerrak eginik egun hartan. Kasik bi aste joan dira holako berri harrigarria batere hedatu gabe bainan azkenean ezin dute gehiago gorde... Eta banko hortako mail gorenean ziren hiru aitzindarik beren kargua utzi behar ukan dute!

BEHARRI HANDI...

Azen ontzeko, horra beste ixtorio bat untsa usain txarra duena! **Nicolas Sarkozy** presidentak berak du afera pusatu auzitegiraf, baizik-eta gezurrez zikindua izan dela Pariseko astekari bateau agertu artikulu baten gatik. Artikulu hori egina baliatuz berrikelari batek noiazpait jakina zuena, zer zen juje batek behin sesitu paper batzuetan. Paper horiek, eskuz idatziak omen hamabi urtez "Beharri Handi" edo "Renseignements Généraux" delako zerbitzu ixilaren hiru gorena izan den **Yves Bertrand** polizako aitzindari ohiak. Hunek dio delako paperak bere "nota" batzu ziela, zointan ez baitzen ezarria holako edo halako gauza egia zela bainan egia zen ala ez ikergai izaiten ahal zela bakarrik... "Nota" batzu beretzat hartuak denboran eta beste nehork ezin baita untsalaz... Zer jalgiko ote den beharri handi eta mihi luze saltsa nahasi hortarik, hori geroak erranen du...

Dena den, Sarkozy ez da bakarra kexatu dena delako artikuluaren gatik... **Charles Pasqua** barne-minixtro ohia ere arrunt hasarre da eta beste politikari batzu arrunt mutur, horietan barne **Lionel Jospin** gobernuburu izan zena bost urtez...

J-B D

Disko berria plazaratu du Benito Lertxundi kantariak hamar kanturekin. Hamar kantuetarik bederatzi berriak dira, hitzez ala musikaz. Hamargarrena, aldiz, Hazpandar Jose Mendiaguen "Kantuz". Diskoaren izenburua : "Itsaso ulu zolia".

Gerla zibileko krimenen aztertzearen kontra

Espainiar Auzitegi Nazionaleko prokuradoreak geldiarazi nahi du Baltasar Garzonek gerla zibileko eta Frankoren diktadura garaiko krimenak ikertzeko asmoa : 1936tik 1952 urteak artean desagertu pertsonen aztarnak aurkitzeko. Jadanik zenbait hilobi -19- aztertzen hasiak zirelarik. Helegitea igorri dio auzitegiari erranez epaileak ez duela horrelako lanaren egiteko eskubiderik. Zenbait abots entzun dira erraiten ez direla gerla zibeleko zauriak berriz ireki behar eta Frankismoaren kontrako zinezko inkisizioa egin nahi duela epaileak. Aldiz familiek lan horren egitea eskertzen dute bidtimen gogoa ez dadin ahantzia izan. Euskal Herrian 13 mila pertsona badira desagertuak : 8660 EAE autonomia erkidegoan eta 3431 Nafarroan.

Lasa eta Zabalaren aldeko omenaldia

GAL-ek duela 25 urte bahitu, torturatu, erahil eta gisu bizian lurperatu zituen Lasa eta Zabalaren oroimenez, Tolosan egitekoa zen manifestaldia indarrez desegin du ertzaintzak. Sei pertsona arrastatuak izan dira, zenbait ordu berantago aske utziak izan direnak. Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak agindua zuen manifestaldia debekatzea. 1995ean Lasa eta Zabalaren gorpuzkinak aurkitu eta Tolosara eraman zituztenean ere istilu handiak izan ziren, orduan ere omenaldia debekatu egin baitzuen Ertzaintzak. Kritika gogorrak entzunarazi dituzte antolatzaileek PSE eta PNV-ren kontra.

Duhalde etxegintza enpresarena (*Herria*, 2008/10/23 2978 zbk.).

Le journal du Pays Basque – Euskal Herriko kazeta (*Le JPB*) egunkari gazteak 12 orrialde gutxienez ditu, batzutan gehiago, eta honek ere iragarki gutxi ditu orotara. Horietatik batzuk euskaraz dira. Erran behar da egunkari hori frantsesez idatzia dela nagusiki.

AEK-ren izen-emate kanpaina, *Dantza Hirian* emankizuna (*Le JPB*)

Iragarkiak zein gizarte-alorrei lotuak diren ohartzea interesgarria da : lehenik eta bereziki euskalgintza eta euskal kultura, gero Hegoaldeko iragarki batzuk, azkenean udalekoak eta enpresa pribatuko gutxi.

Kazeta.info web gune berria, Kontseiluaren « euskal tonbola » (*Le JPB*)



Aritz Araburu doit maintenant tout donner

Le quiksilver pro se déroule actuellement dans les Landes, l'occasion de rencontrer le basque Aritz Araburu, l'un des quatre Européens engagés dans l'élite du surf mondial, le top 45. Il évoque sa saison rendue difficile par les blessures et son désir de se battre jusqu'au bout pour sauver sa place. Cela devra commencer par Hossegor où il entre en lice ce matin et devant de nombreux supporters venus de Zarautz. Page 15

Page 7

Tribune libre Page 7

"Quel est le crime ?"

par Gérard ONESTA

PUBLICITÉ

Bâtiland L'univers des matériaux

www.batiland.fr

MATÉRIAUX DE CONSTRUCTION BOIS COUVERTURE ISOLATION MENUISERIES CARRELAGE

BERECIARTUA MATÉRIAUX
Ascain : 05 59 85 99 99
Baigorri : 05 59 37 91 00

CAMOU-HIRIBARNE
Hasparren : 05 59 29 10 57

ETCHEGINTZA MATÉRIAUX
St-Gladie : 05 59 38 51 41
Navarrenx : 05 59 66 12 03
Chéraute : 05 59 28 16 18

Hoberenak zure zerbitzuko !

Seaskaren *Glisseguna* animazioa, *Bâtiland* etxegintza enpresaren iragarki elebiduna.

3.3. IV. inkesta soziolinguistika Ipar Euskal Herrian : Euskararen erabilera merkataritzan eta zerbitzuetan

Zein hizkuntzetan mintzatzen zara ? **Jendetza osoa**

Hiztunak	Euskaraz gutxi gorabehera	Euskaldunak frantsesez	Erdaldunak	Frantsesez orotara
Banketxean	% 11,8	% 19,3	% 68,9	% 88,2
Osasun-zerbitzuan	% 9,6	% 21,2	% 68,9	% 90,1
Udaletxean	% 16,6	% 14,5	% 68,9	% 83,4
Administra-zioan	% 8,6	% 22,5	% 68,9	% 91,4
Saltegietan	% 14,5	% 16,6	% 68,9	% 85,5

Panorama labur honen bukatzeko interesgarria da ikustea Ipar Euskal Herrian 2006ko IV. inkesta soziolinguistikoaren arabera zein diren erdal gune nagusiak. Beraz, ahozko erabilerari bizitza sozioekonomikoan interesatzen gatzaio. Bere « Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian » txosten gotorrean Erramun Baxokek dio : « gizarte zerbitzuetan euskarak ez du leku handirik salbu herriko etxeetan » (2008 : 46)[1].

Banketxeetan frantsesez bakarrik mintzatzen direnak hiztunen % 88,2 dira (% 68,9 erdaldun + % 19,3 euskaldun), osasun-zerbitzuetan % 90,1 dira (% 68,9 erdaldun + % 21,2 euskaldun), udaletxeetan % 83,4 dira (% 68,9 erdaldun + % 14,5 euskaldun) eta administrazioetan % 91,4 (% 68,9 erdaldun + % 22,5 euskaldun). Saltegietan % 85,5 dira frantsesez bakarrik mintzaten direnak (% 68,9 erdaldun + % 16,6 euskaldun).

Halere, familian, etxean, lagunekin, auzokoekin gehiago dira euskaraz gehiago, euskaraz frantsesez bezainbat edo gutiago mintzatzen direnak.

Emaitza hoien balio erlatiboaren ebaluatzeko, jakin behar da euskaldunak % 22,5 direla orotara eta elebidun hartzaileak % 8,6 inkestaren arabera.

4. ONDORIO GISA

Kontsumoan euskararen ibilbide kaotiko eta anekdotikoa aurkeztu dugu pixka bat[2]. Noski horren azterketa sistematikoa egiteko da.

Baina, segur aski ere, Ipar Euskal Herrian kontsumoaren alorrean euskararen alde gehiago egin daitekeela agertzen da. Baina frantsesa erabiliz ere nahitaez, frantsesari osoki emana den Frantziako legeriarengatik.

5. IKONOGRAFIA KRONOLOGIAN

Cazenave 1884: Escualdun Almanac edo egunari berria
Obin 1884: Escualdun Almanac edo egunari berria
Soc Générale 1884: Escualdun Almanac edo egunari berria
Ameriketako pakebota 1885: Almanaka Berria
Singer 1885: Almanaka Berria
Pharmacie Moderne 1907: Eskualdun Onaren Almanaka
Benédictine 1911: Eskualdunaren Almanaka
Arnaud Louis 1923: Eskualdunaren Almanaka
Belle Jardinière 1923: Eskualdunaren Almanaka[3]
Crédit Mutuel banketxeko dokumentua 2008
Berria astekaria 2008 : Martin Irazoquy tindatzailea
Berria astekaria 2008 : Duhalde etxegintza enpresa

---

[1] Euskararen Erakunde Publikoaren hizkuntza politika proiektu berrian kontsumitzaileei eta erabiltzaileei hizkuntzaren eskaintza ez da kontuan hartu (*Hizkuntza politika proiektua « Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun »*, 2006ko abendua).

[2] « Anekdotiko » da A. Urrutia euskaltzainburuak erabili duen adjektiboa hitzaldi honen ondoko eztabaidan.

[3] Jasone Salaberriak lehen bederatzi dokumentu eskanerizatu horiek eman dizkit ; Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian kontsulta daitezke.

Le journal du Pays Basque – Euskal Herriko kazeta egunkaria 2008 : 7 iragarki 2008ko udazkena.

ERREFERENTZIAK

BAXOK Erramun, 2008, *Euskera egoera Ipar Euskal Herrian – La situation de la langue en basque au Pays Basque nord,* Euskararen Erakunde Publikoa, polikopiatu elebidun.

DÍAZ NOCI Javier, 1995, Ipar Euskal Herriko almanakak, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939),* Medios de communicaci□n 5, Donostia, Eusko Ikaskuntza : 35-38.

EUSKALTZAINDIA – JAGON SAILA, 2007, Gizakiaren eta Herritarren Eskubideei buruzko Adierazpena (1789), 11. artikulua, *Hizkuntza-zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz,* Bilbo, Euskaltzaindia : 137.

_____, 2007, Toubon legearen 1, 11-I, 21. artikuluak (1994), *Hizkuntza-zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz,* Bilbo, Euskaltzaindia : 144.

EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO FORU ALDUNDIA, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2008, *Euskararen Jarraipena IV - Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2006.*

LOI N° 94-665 du 4 août 1994 *relative à l'emploi de la langue française* [1994ko agorrilaren 94/665 zenbakirekiko legea, frantsesaren erabilerari buruzkoa], www.legifrance.gouv.fr/texteconsolide/PCEAW.htm.